


SABINO ARANA FUNDAZIOA

nemēs

PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA. REVISTA DE PENSAMIENTO E HISTORIA NOV. 2018 AZAROA. Nº 60 ZBK. 5€



EUSKARAREN |
ERABILERAREN GAKOAK

ERRAMUN OSA BINGEN ZUPIRIA ANA OLLO JON AIZPURUA MIKEL ARREGI GARBINE
BEREZIARTUA BENAT MUGURUZA JEAN-BAPTISTE COYOS ANA ESTHER FURUNDARENA
LAURA GARRIDO JOXERRA GARZIA INAKI IRAZABALBEITIA IBON MANTEROLA INAKI
MARTÍNEZ DE LUNA LANDER MARTÍNEZ IDOIA MENDIA GARBINE MENDIZABAL MERTXE
MUJICA INMA MUÑOA PATXI SAEZ NATXO SOROLLA REBEKA UBERA JON ZARATE

“LA GRAN LECCIÓN DE LA EUSKALTZAINDIA HISTÓRICA ES QUE EL EUSKERA NO ES ALGO DE UNOS CONTRA OTROS”
ANDRÉS URRUTIA

nemes

Pasa da olatu erraldoia! Lerro hauek irakurtzen dituzunerako, olatua pasata egongo da, pasa berria. Gozatu egin dugu. Orain olatu horrek utzitako indarra baliatu behar dugu.

Milaka eta milaka ahobizi eta belarriprest, milaka eta milaka surfleri olatuan murgilduta. Eta festaren erdigunean bi hitz: konpromisoa eta ariketa soziala. Horixe baitzen asmoa: ariketa sozial honen bidez galdera hau mahai gainean jartzea eta ahal dela erantzutea: gai ote garen gure hizkuntz ohiturak eta inertiak aldatzeko; gai ote garen norbanako moduan zein gizarte moduan.

Hermesetik ere gure ekarpen txikia egin nahi izan diogu prozesuari, uztailan Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatutako *Euskararen erabileraren gakoak* mintegiaren hausnarketak –beste batzuekin osatuak- gurera ekartzen. Erakusleiho koloretsua, zabala, anitza, edukiz beterikoa, diagnostikoa marrazteko guztiz baliagarria. Orain zuk irakurle duzu aukera leiho hori zabaltzeko.

Esaldi batekin geratzen naiz: gure esku dago. Guztion esku, erakundeen esku, gizarte zibileko eragileen esku... zure eta nire esku!

ERRAMUN OSA	4
BINGEN ZUPIRIA	6
ANA OLLO	10
JON AIZPURUA	14
MIKEL ARREGI	20
GARBIÑE BEREZIARTUA BEÑAT MUGURUZA	24
JEAN-BAPTISTE COYOS	30
ANA ESTHER FURUNDARENA	34
ANDRÉS URRUTIA . ELKARRIZKETA	38
LAURA GARRIDO	52
JOXERRA GARZIA	54
IÑAKI IRAZABALBEITIA	62
IBON MANTEROLA	64
IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA	68
LANDER MARTÍNEZ	72
IDOIA MENDIA	74
GARBIÑE MENDIZABAL	76
MERTXE MUJIKA	78
INMA MUÑO A	80
PATXI SAEZ	84
NATXO SOROLLA	92
REBEKA UBERA	94
JON ZARATE	96
APUNTE DEL DIRECTOR	98



sabino
arana
fundazioa

EDITA: **SABINO ARANA FUNDAZIOA**
MANDOBIDE, 6-3º. 48007 BILBAO.
T: 94 405 64 50
idazkaritza@sabinoarana.eus
www.sabinoarana.eus



Bizkaia
foru aldundia
diputazio foral

DIRECTOR:
JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ
COORDINADORA DE EDICIÓN:
OLGA SÁEZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OBRA GRÁFICA: **ANE PIKAZA**.
FOTOGRAFIA: **TXETXU BERRUEZO**.
DISEÑO: **LGRTM**.
IMPRIME: **FLASH IMPRESIÓN**.

D.L.: BI-986-01. ISSN: 1578-0058

GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEERRIA

BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA

ERABILERAREN GAKOAK
EGOERA INFORMALETAN
ETA GAZTEEN ARTEAN:
HITANOAZ AZPEITIKO
GAZTEEN ARTEAN

Euskarak bi tratamendu gorde ditu XXI. mendean hasierara arte: zuka ala hika aritu ohi gara euskaldunok. Argi dago euskal hiztun gehien-gehienek zuka baino ez dutela egiten, baina Euskal Herriko zenbait txokotan bizirik dirau hitanoak, batzuetan sendoago, bestetan ahulago, eta oraindik badirudi funtzio sozial bat betetzen duela. Alberdik (1994) zehaztu

zituena hitanoaren nondik norakoak: norik egiten dio nori, eta zein egoeratan? Alda ote dezakete denboran zehar elkarrekiko tratamendua bi lagunek? Aldaera geografiko nabarmenik ba ote dago?

Alberdik (1994) familia jo zuen hitanoaren eremu naturaltzat; etxean egiten da hika gehien, beraz. Gurasoek seme-alabei bai, anaia-arrebek haien artean ere bai, baita osaba-izebek ilobei ere, baina ia inoiz ez behetik gorako harremanetan. Alegia, seme-alabek gurasoei nekez egingo diete hika. Senar-emazteek ere, behin ezkontuta, zuka dute tratamendu arruntena. Patroi bat errepikatzen da eremu, testuinguru, harreman orotan: gizonezkoen arteko hizketan da ohikoena hika egitea. Hika egiteko faktore bultzatzaileak, sexuaz gain, adina, ahaidetasun-maila eta harremanen maiztasuna lirateke.

Kalean ere egiten da hika, noski, lagunartean bereziki. Bestela, beste kidetasun mota bat egon ohi da presente, bi pertsonaren arteko tratamendua hika izango bada: izan daitezke lan-kideak, auzokideak, herrikideak edota jolaskideak.

Eta gure buruari nola egiten diogu? Bitxia da hitanoarekin gertatzen dena. Ohikoa da gure buruari zuzenean hitz egiten diogunean hika egitea, eta gizonak toka eta emakumeak noka egin ohi die haien buruari. Hartzaille definiturik ez dagoenean, gure buru barruan hitz egiten ari garenean (maiz pentsamenduok ahora eraman gabe), bai gizonak bai emakumeak toka egiteko joera argia erakusten dute.

Ezaugarri hainbat direla medio, gure hizkuntzak duen aldaera ezin interesgarriagoa izan arren, ez du ikertzaileen artean arreta handirik bereganatu. Alberdik (1994) doktorego-tesia ondu zuen hitanoaren gainean Euskal Herriko 51 herritan landa-lana gauzatu, eta geroztik atera dira han-hemenka ikerlan bakan batzuk, Azkuek (2000) Zumaian egindakoa izanik garrantzitsuenetakoa.

Azken urteotan, ordea, hitanoaren gaineko ikerkuntzak loraldi xume bat izan du, eta horren erakusgarri da, besteak beste, Soziolinguistika Klusterrak (2016) Azpeitian egindako hitanoaren kale-erabileraren neurketa, inoiz egin den lehena. Euskal Herrian ikus ditzakegun gainerako eremu gehienekin alderatuta, hitanoa Azpeitian bizi-bizirik dagoela esan genezake, eta aproposa izan liteke halako lan baterako. Ikerketa honetan, euskaraz entzundako elkarrizketen arteko %18,1 izan ziren hika (gizonezkoen %28,1; emakumezkoen %10,6). Gazteen artean (15-24 urte), antzeko datu orokorrak bildu dira, baina tokako formak erabat gailentzen zaizkie nokakoei; hain zuzen, gazteen elkarrizketetako %1,7 baino ez baitzen noka izan.

Gure ikerketan oso bestelako metodologია erabili dugu Azpeitian hitanoarekin zer gertatzen den ikusteko. Antzeko emaitzak ematen ote dituzte kaleko behaketa zuzenak eta galde-sorta bidezko erabilera aitortuen datuek? Eta haratago joanda, indarrean segitzen ote dute Alberdik duela 30 urte inguru jasotako hitanoa erabiltzeko ohitura eta arau sozialek? Gazteei balio ote die hitanoak batzuetan falta zaien aldaera informala indartzeko?

Azpeitiko gazteen artean hitanoarekin gertatzen denaren gainean jarriko dugu begia azterlan honetan.

GURE IKERKETA: METODOLOGIA

Esku-artean ditugun orrietan erakutsiko ditugunak ikerketa zabalagoko baten parte dira. Ikerketa horrek hiru fase dauzka: lehenengo fasean, Azpeitiko erabilerari buruzko datu zehatzak lortzea izan dugu helburu. Bigarren fasean, azken belaunaldietan hitanoak izan duen atzerapausoa zergatik gertatu den eta hori zein faktorek eragin duten aztertu nahi dugu, eta hirugarren fasean, aurrera begira hitanoa indarberritzeko zer egin daitekeen ikusi eta horretarako pausoak martxan jarri nahi genituzke. Lehenengo fasean, batik bat, metodologia kuantitatiboak erabili ditugu, kualitatiboak bigarren faserako, eta

SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRAK (2016)
AZPEITIAN EGINDAKO HITANOAREN KALE-
ERABILERAREN NEURKETA, INOIZ EGIN
DEN LEHENA

ekintza-ikerkuntza hirugarrenerako. Orain ikerketaren lehenengo fasean gaude eta hitanoaren erabileraren datuak jaso ditugu Azpeitiko helduen artean, gazteen artean eta urmeen artean. Hemen erakutsiko ditugun emaitzak gazteengandik jasotako erantzunetan oinarritzen dira.

Guztira 12tik 18 urtera bitarteko 397 gaztek emandako erantzunak aztertu ditugu (%52,3 emakumezko eta %46,7 gizonezko), DBH2, DBH4, 1. Batxilergo eta 2. Batxilergoko ikasleak. Eta datuak biltzeko erabilitako tresna galde-sorta bat izan da.

GURE IKERKETA: EMAITZAK

Jaso ditugun datuen artean, nabarmentze-koak iruditu zaizkigunak ekarri ditugu hona, esaterako: hitanoaren familiako erabilera, ikastetxekoa,

lagunartekoa eta buru barruan erabiltzen dutena; eta horiekin batera erabiltzen den hitano horren zuzentasunari buruzko datuak eta aurrez aurre komunikatzeetik idatziz komunikatzera gertatzen direnen berri ere emango dugu.

FAMILIAN

Familiari begira jarrita, guraso eta seme-alaben arteko hitanoaren erabilerari erreparatu diogu. Gurasoek seme-alabei hika zenbat egiten dieten begiratuta, ikusten da alabei hika gutxiago egiten dietela, bai amek eta bai aitek; beraz, gurasoengandik hika gehien jasotzen dutenak mutilak direla, bereziki aitengandik. Hori ikus daiteke 1. taulan:

1. TAULA
GURASOEK SEME-ALABEI EGITEN DIETEN HIKA KOPURUAREN EHUNEKOAK

	Alabari	Semeari
Amak	4	11,1
Aitak	7,5	40,2

Tradizioak esan arren seme-alabek gurasoei hika ez dietela egin behar, interesgarria iruditu zaigu horrekin zer gertatzen ari den ikustea. Emaizetan aurkitu dugu alabak amari ez diola inoiz hika egiten; aldiz, %5,6k aitari egin egiten diola. Semeen kasuan, %6,8k esan du amari egiten diola, eta semeen %27,6k erantzun du aitari hika egiten diola, beti edo gehienetan. Hori ikusita, helduengandik jaso ditugun datuetara jo nahi izan dugu, tradizioak agintzen duenarekin belaualdiz belaualdi zer gertatzen ari den ikusteko: 61 urtetik

MUTILEN ERDIA BAINO GEHIAGOREN KASUAN HITANOA PRESENTE DAGO FAMILIAKO KIDEEKIN; NESKEN KASUAN, ALDIZ, KOPURU HORI EZ DA %17RA IRISTEN

gorakoen artean aitari hika inoiz egiten ez zioten arren, adinean behera joan ahala, aitari hika egiten dioten semeen kopuruak gora egiten du. 2. taulan daude emaitza horiek:

2. TAULA
AITARI HIKA EGITEN DIOTEN SEMEEN EHUNEKOAK ADIN-TARTE BAKOITZEAN

	Aitari
12-18 urte	27,6
19-25 urte	12
26-35 urte	6,1
36-45 urte	5,7
46-60 urte	3,1
> 61 urte	0

Familiako beste kide batzuekin gertatzen denari begira jarrita, senideen arteko hitanoaren erabilerari dagokionez, ikusi dugu ahizpen artean hika egiten dutenak ez direla %5era iristen, neba-arreben artean hika %15-20k egiten dute (betiere nebek arrebei gehiago, alderantziz baino), eta anaien artean erdiak egiten du hika beti edo gehienetan. 3. taulan ikus daitezke datu zehatzagoak:

3. TAULA
SENIDEEN ARTEAN EGITEN DEN HIKA KOPURUAREN EHUNEKOAK

	Ahizpa / Arrebari	Anaia / Nebari
Neskek	4,8	15,2
Mutilek	19,6	50

Familiako gainerako kideekin hitanoa zenbat erabiltzen duten ere jakin nahi izan dugu (lehengusuak, osaba-izebak, aiton-amonak...). Xehetasun gehiagotan sartu gabe, ikusi dugu mutilen erdia baino gehiagoren kasuan dagoela hitanoa presente familiako gainerako kideekin dauzkaten harremanetan; nesken kasuan, aldiz, kopuru hori ez da %17ra iristen.

Maiztasunetatik haratago joanda, zenbait adagairen artean dauden eraginak ere aztertu ditugu. Bereziki interesatzen zitzaigun gurasoek hika egiteko joerak zenbateraino eragiten dion seme-alaben hika egiteko joerari. Hala, aztertu dugu nola eragiten dien gurasoek seme-alabei hika egiteak, gurasoek lagunekin hika egiteak, eta gurasoek elkarri hika egiteak, seme-alabek senideekin eta lagunekin hika egiteko orduan. Gure emaitzetan

oinarrituta, ezin dugu esan gurasoen hitanoaren erabilerari lotutako hiru aldagai horiek erabakigarriak direnik seme-alaben hika egiteko ohituran. Hala ere, joera bat ikusi dugu, kasu askotan maila apalean, baina zenbait kasutan modu nabarmenagoan. Esate baterako, gurasoek seme-alabei zenbat eta gehiago egin hika, seme-alabek orduan eta kasu gehiagotan egiten dute haien artean hika. Hori erakusten du 4. taulak:

4. TAULA
SENIDEEI HIKA EGITEN DIETEN PARTE-HARTZAILEEN
EHUNEKOAK, GURASOEN HAIEI EGINDAKOAREN
ARABERA

	Ahizpa / Arrebari	Anaia / Nebari
Biek zuka	5,6	22,4
Batek zuka eta besteak hika	23,1	62,2
Biek hika	53,3	66,6

IKASTETXEAN

Familiatik ikastetxera salto eginda, ildo bereko datuekin topo egin dugu. Irakasle emakumezkoek nesken arteko %1,9ri egiten diote hika, eta mutilen arteko %8,6ri. Irakasle gizonezkoek, aldiz, nesken arteko %9,1i, eta mutilen %57,5i. Ikusi dugu gurasoek seme-alabei nola egiten dieten, antzeko patroia errepikatzen dela eskolan, are modu nabarmenagoan.

LAGUNARTEAN

Lagunartean nola aritzen diren begiratuta, nesken artean %2,4k baino ez du hika beti edo gehienetan egiten, eta nesken %13k mutilei. Mutilek lagunekin hika egiteko dauzkaten ohiturak erabat desberdinak dira; neskekin hika mutilen arteko %16,1ek egiten badu ere, mutilen artean %87,1ek egiten du. Ikus 5. taula:

5. TAULA
LAGUNEKIN HIKA ERABILTZEN DUTEN PARTE-
HARTZAILEEN EHUNEKOAK

	Neskei	Mutilei
Neskek	2,4	13
Mutilek	16,1	87,1

Gazteek beren lagunekin hika egiteko daukaten joeran beste zenbait aldagaik izan dezaketten eraginari begira jarrita, familian gertatzen zen moduan, ezin dugu esan gurasoen hika erabilerari lotutako aldagaiak erabakigarriak direnik, baina bai eragin egiten dutela, eta zenbait kasutan modu nabarmenean. Gurasoen kasuan ez ezik, familiako beste kideek hika egiteak ere eragina duela ikusi dugu.

BURU BARRUAN

Gure buru barruan erabiltzen dugun hizkuntzari edo, kasu honetan, tratamenduari erreparatuta, bi egoera bereizi behar dira: buru barruan pentsatzeko erabiltzen duguna eta geure buruari hitz egiteko erabiltzen duguna (esaterako, animoak eman edo errieta egiteko). Gure emaitzetan ikusi duguna hau da: mutil gehienek hitanoa erabiltzen dute kasu batean zein bestean. Neskei dagokienez, aldiz, zukarako joera handiagoa dute, baina alde handia dago beren buruan egiten dutenetik beren buruari egiten diotenera: pentsatzeko hika erabiltzen duten nesken kopurua %4,3 da eta beren buruari hitz egiteko hika erabiltzen dutenena %22,2; mutilen kasuan datu horiek %69,4 eta %75,8 dira, hurrenez hurren.

ZUZENTASUNA

Gizonari toka eta emakumeari noka egin behar zaion arren, ez dira gutxi emakumeei ere toka egiten diotenak. Gure ikerketako gazteen artean, %20,2k aitortu du emakumezkoari toka egiten dietela, eta mutilei noka egiten dietela, berriz, %3,8k. Bereziki, neskei toka egite hori zergatik egiten duten galdetutakoan “ez dakit”, “horrela ateratzen zaidalako” moduko erantzunak eman dituzte gazteen arteko bi heren pasatxok. Baina kopurua txikiagoa izan arren, nabarmenagoa iruditu zaigu %8k erantzun duena: “hika nahi dudalako hitz egin baina noka ez dudalako ongi kontrolatzen”.

AURREZ AURRE ZUKA ETA IDATZIZ HIKA

Batetik, gauza jakina da beste pertsona batekin komunikatzean, ahoz komunikatu beharrean, idatziz komunikatzeak desinhibituago sentiarazten gaituela. Bestetik, uste genuen egon zitekeela hika egin nahi bai baina aurrez aurre egiten ausartzen ez zen jendea. Beraz, bi ideia horiek uztartuz, galdetu genien gertatzen ote

zaien aurrez aurre zuka egiten duten pertsonaren batekin idatziz komunikatzean, hika jardutea. Nesken eta mutilen artean antzeko emaitzak jaso ditugu: %18 inguruk esan du baietz, errazago egiten duela hika idatziz komunikatzean. Zergatiari buruz galdetutakoan, %70 ez da arrazoa identifikatzeko gai izan eta “ez dakit, ohituragatik” moduko erantzunak eman ditu, baina bestelako erantzunak ere jaso ditugu: pentsatzeko denbora gehiago dago, akatsa egiten baduzu, zuzentzeko denbora duzu”, “batzuetan zuka oso hotza iruditzen zait”, “errazago idazten da, lotsa gutxiago ematen du”, edota “nik hika egin nahi nioke eta idatziz errazagoa egiten zait”.

Erabilerari buruzko galderak egin ostean, egiten dutena baino gehiago egitea gustatuko al litzatekeen galdetu genien. Nesken arteko ia bi herenek eta mutilen arteko ia erdiak eman dio baiezkoa galderari. Horrekin batera, galdetu genien hika nahi beste ez egiteko arrazoiak zein diren eta gehien errepikatu dituzten erantzunen artean, hauexek daude: “ez dakit nahi bezain ongi egiten”, “arraro sentitzen naiz”, “ohiturak aldatzea nekeza egiten zait”, eta “lagunek ez dute egiten”.

Bildutako datuetan ikusi ditugun emaitzak ezagutu ondoren, horri guztiari buruz atera ditugun ondorioen berri emango dugu.

ONDORIOAK

Lehenengo ondorio moduan, esan behar dugu aurrez espero genuena baieztatu dugula: neska eta mutilen artean alde izugarria dago, bai egiten duten horretan, bai jasotzen duten horretan. Alegia, neskei gutxiago egiten zaie hika, eta neskek gutxiago egiten dute hika.

Bigarrena, “xirimiri efektua” deitu dioguna izango litzateke. Gazte horien hitanoaren erabileran zein aldagaik eragiten duen aztertu nahi izan dugu. Ikusi dugunaren arabera, ezin dugu esan aldagai jakin bat erabakigarria denik, joerak identifikatu ahal izan ditugun arren. Gure hipotesia da aldagai bakar batek ez duela hainbeste eragiten, norabide berean doazen aldagai gehiago egon ezean.

Hirugarrena, egokitasuna: hitanoaren ezau-garrietako bat generoaren arabera komuniztadura den arren, ikusi dugu neskei toka egiteko joera handia dagoela, bai mutilen artean, baita

nesken artean ere. Hausnarketa sakonagoetarako bide ematen du horrek eta horren atzean dauden arrazoiak ezagutzea da gure ikerketaren hurrengo faseko helburuetako bat.

Laugarren ondorioari dagokionez, aurrez ere komentatu dugu aurrez aurre komunikatzean baino desinhibituago sentitzen garela idatziz komunikatzean. Horrek bi ideia adierazten dizkigu guri: bata, idatziz hika errazago egitea pertsona batzuek hika egiten dutena baino gehiago egiteko desiraren seinaleztat hartu ote dezakegun; bestea, gure ikerketaren ondoko faseetan hitanoa indarberritzen saiatzeko asmoa dugunez, jendea hika egitera bultzatzeko testuinguru aproposak identifikatzea komenigarria litzateke, eta agian hau izan liteke aintzakotzat hartzeko puntuetako bat.

Bosgarrenak eta azkenak aurreko puntuarekin badu zerikusia, ikusi baitugu gazte gehienek badutela hika egiten dutena baino gehiago egiteko desira; batik bat, neskek. Eta joera berbera antzeman dugu helduek eman dizkiguten erantzunetan ere. Horrek erakusten digu zenbait komunitatetan badagoela beharra, badagoela gogoa, hitanoa erabiltzen dena baino gehiago erabiltzeko. Eta horrek, esku-artearen dugun egitasmoan aurrera egiteko premia erakusten du.

ERREFERENTZIAK

- Alberdi, X. (1994). Euskararen tratamenduak: erabilerak. Doktorego-tesia, UPV/EHU.
- Azkue, X. (2000). Hitanoa Zumaian. Zumaia: Zumaia Udala.
- Soziolinguistika Klusterra (2016). Azpeitiko hizkuntza erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016. Emaizten txostena. Andoain: Soziolinguistika Klusterra

